

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure enpresari Idelix izena jartzea erabaki dugu eta gure lehen proiektuari Gi-Fi, *Give Wifi* lemarekin.

Nobedadeak garrantzi handia du proiektu honetan, lehenagotik ditugun mugikorren funda eta wifi routerra produktu batean bateratzen ditugulako, wifiaren mobilitate hobetzeko helburuarekin.

Prestazioa ere garrantzitsua da funda bati router bezala funtzionatuko duen mekanismo txiki bat gehitu behar diogu ahalik eta kalitate hobereana lortuz, baina aldi berean txikia izanez funda batean gehitu eta txukun gelditu behar delako.

Pertsonalizazioa gure proiektuaren zati garrantzitsuenetako bat da nobedade bat izateaz gain gure fundek estetika eta wifi modalitate ezberdinak izango dituztelako. Adibidez, fundaren kolorea eta diseinu pertsonalizatuak lortu ahal izango dira, baita ere wifi modalitatea aukeratzeko aukera izango da; hau da, 5G, 4G edo dena delakoa.

Funda honi esker ez genuke gehiago kezkatu beharko wifi-a eta kobertura nahi dugun lekuan izateaz; hau da, lana errazteak ere balio nabarmena hartuko luke.

Diseinua, pertsonalizazioarekin batera, bere ezaugarri garrantzitsuena delako. Gure produktuak besteegandik bereizteko eta jendea erakartzeko balio oso garrantzitsu bat delako.

Hasieran marka edo status-a ez da gure puntu garrantzitsuena denentzat eskuragarria izatea nahi dugulako, baina etorkizun batean arrakasta handia lortuz gero gure balioetako bat bihurtzea posible litzateke.

Prezioa gure balio garrantzitsuenetako bat da denentzat eskuragarri izateko prezio merkeak ezarriko ditugulako, hasiera batean behintzat. Arrakasta lortuz gero, gure irabaziak handiagoak izatea nahi badugu puntu hau ere berriz pentsatu beharko genuke eta agian prezioak pixkabat igo.

Oso erabilgarria da, horrelako funda bat baduzu ez duzulako kalean ez inon kobertura edo wifia izateko kezkarik.